



Aizpea Goenaga Etxepareko zuzendaria, Saioa Olmo artista, Nekane Aranburu GAUR (sic)-en zuzendaria, eta Larraitz Torres, Sandra Cuesta eta Juan Aizpitarre artistak, atzo. JUAN CARLOS RUIZ / ARP

## Artearen nazioarteko bira

‘GAUR (sic)’ erakusketa Londresen eta Hego Amerikan izango da: Euskal Herriko arte garaikideko zortzi obra biltzen ditu

Nekane Aranburuk aukeratu ditu lanak, Etxepare Euskal Institutuarekin elkarlanean

**Ane Urrutikoetxea** Donostia

Nazioartean bira egingo du Euskal Herriko arte garaikidearen lagin aukeratu batek. Etxepare Euskal Institutuarekin elkarlanean, Nekane Aranburuk GAUR (sic) arte garaikideko erakusketa ibiltaria antolatu du Euskal Herriko ikus-entzunezko zortzi lane-kin; erakusketa Londresko PIN-TA Earl'2 Court Exhibition Centre jaialdian irekiko dute, ekainaren 15ean, eta 2015eko otsailera arte Hego Amerikako hainbat hiritan aurkeztuko dute: Tegucigalpan, San Josen, Mexiko Hirian, Montevideon, Cordoban (Argentina), Santiagon eta Managuan. Erakusketa ez da izango Euskal Herrian; Etxepare institutu-ko zuzendari Aizpea Goenagaren ustetan, helburua da hemen- go artea nazioartean ezagutzera ematea. Dena den, Aranburuk egindako sailkapenaren katalogoa eskuragarri jarriko dute sarean.

Aranburuk 2011n jarri zuen martxan erakusketaren proiektua, Euskal Herriko azken urteetako arte garaikidearen bilakaera aztertzeke helburuarekin. Bilaketa horretan, hamabi artistaren ikus-entzunezko zortzi obra aukeratu ditu; lan horiek Euskal Herriko arte garaikidearen bilakaeraren ordezkariak dira, haren esanetan: «Euskal Herriko arte garaikidearen bilakaera erakusten duen dastatze sorta aukeratu dut, Etxepare institutuaren laguntzarekin, nazioarteko areto esanguratsuenetan aurkezteko. Saillkapena egitean, obraren testuingurua eta arte garaikidearen garapenean duen garrantzia baloratu ditut, lanari lehenetsuna emanez artistaren izenaren edo ibilbide profesionalaren gainetik».

Aukeraturako ikus-entzunezko lanak hauek dira: Alaitz Arenaza eta Maria Ibarretxeren Sra. Polarroiska taldearen *Pilota Girls*, Sandra Cuesta eta Larraitz Torresen Colombina's taldearen *Hacia*

*la luz y los vegetales*, Ixone Sadabaren *Shipwreck with Spectator*, Aitor Lajarinen *Postcity*, Juan Aizpitarteren *Gen*, Zuhar Iruretagoienaren *Vexations*, Saioa Olmoren *Hamaika urte dantzan* eta Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkumen *Work in Progress*. Obrek nazioartean ezagutzera emango dute egungo Euskal Herriko sorkuntzaren egoera, Aranbururen arabera. «GAUR izena jarri diot erakusketari, duela 50 urteko izen bereko artista taldearen izenean. Talde horretan euskal artista eza-



Gaur egun asko aldatu da arte garaikidearen egoera; emakumeak dira sortzaile gehienak»

**NEKANE ARANBURU**  
GAUR (sic) erakusketaren zuzendaria

gunak zeuden, hala nola Jorge Oteiza eta Eduardo Txillida. Arte garaikidea sortzeko eredu hori bertikala eta itxia zen; gizonezko irudi sendoek osatzen zuten. Nire ikerketan, gaur egun egoera asko aldatu dela ikusi dut; aukeraturako obren egileak ez dira horren ezagunak, eta horrek libreagoa eta denetarikoa egiten du erakusketa. Gainera, egile gehienak emakumeak dira, ez duela urte

batzuk bezala. Erakusketa honetan, soilik bi gizonen obrak aukeratu ditub.

**Irudia artearen adierazpide**

Nazioartean batetik bestera mugitzeko askatasun handia izango du erakusketak, USB memoria batean eramangarria baita. «Erakusketa osoki digitala denez, ez dugu izango nazioartean ibiltzeko arazorik. Londresen Ixone Sadabak aurkeztuko du bilduma, eta ondoren Amerikako hirietan izango gara; baina gure helburua herrialde gehiagotan zabaltzea da, hemengo artearen lagin hau ahal bezainbeste ezagutaraztea».

Ehundik gora lan aztertu ditu Aranburuk, eta hiru ardatz erabil ditu aukeraketa egiteko: emakumeek egindako lanen indarra, taldean egindako lanen ugaritasuna eta diziplinarteko saltoa. «Erakusketa hau gaur egun sortzen den arte guztiaren ordezkari txiki bat da, baina ordezkari zabala eta askotarikoa biltzen saiatu naiz. Gainera, zortzi zenbaki ego- karia iruditu zait, infinitu kontzeptuaren esanahia bereganatzen duelako».

Lanetako askok hiriekin eta bidaiarekin lotura dute. Sra. Polarroiska taldearen *Pilota Girls* bideokipak hasiko du erakusketa. Bost minutu irauten du, eta, keinu metaforikoan bitartez, emakumea,

esku pilota eta Bilboko hiria lortzen dituzte. Ixone Sadabaren he- mezortzi minutuko *Shipwreck with Spectator* irakeko Halabja hirian grabatuta dago, eta Aitor Lajarinen *Postcity*-k Los Angelesen etorkizuna erakusten du fik- ziozko dokumental batean. Col- lombina's taldearen *Hacia la luz y los vegetales*, hain zuzen, *road movie* baten antzera egina dago, Larraitz Torresen esanetan: «Itzuli musikal baten antzeko forma dauka, baina gidoirik gabe. Mugi- mendua eta bidaiaren kontzeptua islatu ditugu».

Gainontzeko lanak abstraktua- goak dira. Iratxe Jaio eta Klaas van Gorkumen *Work in Progress*-ek Lea-Artibaiko kautxuaren in- dustriaren ekoizpen masiboa aur- kezten du, eta modu prekarioan lan egiten duten emakumeen egoera salatuta. Zuhar Iruretagoi- nak espazioa eta denbora landu ditu *Vexations* dokumentalean, izen bereko Eric Satieren obra musikal oinarri hartuta. Saioa Olmok patinetan irristan dara- man emakume bat aurkezten du *Hamaika urte dantzan* lanean, eta Juan Aizpitarrek eskultura di- gital baten mugimenduak ikertu ditu *Gen* obran. Aizpitarrek mate- matika eta artea nahastu ditu bere lanean: «Sortutako objektu digitalaren mugak gainditzen saiatu naiz».